


JAN(H)ARIAREN ATZETIK



Linealetik zirkularrera!

Egungo ekonomia ereduak aldatu beharra dagoela argi dago, ekonomia linealetik zirkularrera salto egin behar dugu.

Horretarako ez dago ezer berria asmatu beharrik! Gure aurrekoek egiten zutena jarraitzea besterik ez dago! Landa eremuari bizkarra eman diogu eta ondorioak nabaritzen ari gara.



ELIKAGAIEN XAHUKETAREN AURKA

Tolosaldean pertsonako, 179 kg elikagai botatzen ditugu urtean. Ahalik eta gutxien xahutzeko aholku eta errezeta batzuk praktikan jarri eta animatu ingurukoak ere berdina egitera!

1. PLANIFIKATU MENUAK eta egin erosketarako zerrenda
2. AUKERATU EROSKETA NOIZ EGIN ez joan gosea duzunean edo presaka
3. ETIKETAK IRAKURRI konsumitzeko datak eta kontserbatzeko gomendioak
5. BEHAR DUZUNA BAKARRIK EROSI eta ez erori eskaintzetan
6. ELIKAGAIK BEHAR BEZALA GORDE jarri produktu zaharrenak aurrean
7. BEHAR DENA BAKARRIK SUKALDATU ez gehiago
8. JANARIA SOBRATU BAZAIZU EZ BOTA! izoztu edo errezeta berriak sortu

Jaietan zentzuz konsumitzeko aukera ere badago

Eta horretaz asko dakite Aduna, Anoeta, Berastegi, Ibarra, Irura, Tolosa, Villabona eta Zizurkilgo 5 urteko neska-mutilek.

Gabonetako erosketak egiterakoan 3 "truko" hauek praktikan jarri dituzte:

1 Erosketak planifikatu eta zerrenda eraman



3 Bertako produktuak herriko dendetan erosi

2 Telazko poltsak edo karroa eraman. Plastikorik ez!

Argi daukate Lur Planetaren zaintza denon ardura dela eta denok dugula zer egin!

LANEAN JARRAITZEN DUGU!

Gure herriaren diagnostikoa "sukaldatzeko" garaia heldu da

Elikagaien inguruko azterketa egingo dugu eta xahuketa gai nagusietariko bat izango bada ere, herrian dauden eguneroko kontsumo ohiturak, aukerak eta askoz gehiago aztertuko ditugu. Horretarako guztien laguntza beharko dugu!

